

Umorez bizi!



Iñaki Murua
IRAKASLEA ETA
BERTSOLARIA

Harrizkoak bagina bezala gabiltza bizitzan, keinu sinpatikorik gabe, goxotasuna adieraztea eta ahulezia erakustea gauza bera direlakoan. Trenak bagina bezala, beti *muturje* berarekin!

Adibidez, horretarako apropos jarritako ekinaldietan barre egitea ongi ikusita dago. Baita kamera ezkutua jarri eta jendearen hanka sarzteekin nahiz jende horri berari barre egitea ere. Eta kontuz serio jarraitu, programaren batek barreak txertaturik dituen unean!

Nik uste, ohiturazko jardun edo bizio nahiz entrenamendu beharko genukeela, umore biltzailearena. Zenbat hitzaldi, klase, mitin, aurkezpen irentsi behar izaten dugun umore tanta bat bera ere gabekoak, hotzak, negukoak! Hara, gure herriko apaiz bati *Negus* deitzen genion, ez dakit beltzogatik hala neguak lan gehiago ematen ziolako.

Kontua da ideiak modu erakargarrian transmitzeko premia barneratzea. Behin, emakume bat nor zen galdezka ari zen Lazkao Txiki eta batek azaldu zion "hori, beltzeko hori? Viuda da, halako ta halakotakoa..." eta Lazkao Txikik: "Viuda e, bi uda, negu bat baino hobea! Hik ez al dakik alarguna esaten?". Hori bai eleganzia eta elejantzia!

Duela hiru urte Angel López mexikar inprobisatzaileari, aurrez jakinarazi gabe, bere bertso-ibilbideari buruzko hitzaldi bat eskatu zioten.

Honela, taldekideek saioetara joateko, bi eguneko bidaiak oihanean oinez egiten zituztela esan ziren. Behin, saio batetik bueltan, mendiko etxola batean otordua egin omen zuten eta ordaintzeko garaian, ezetz, egin zegoela, etxekoandreak. Orduan, esker onezko bertso batzuk kantatu zizkionten, baita emakumezkoa hunkituta negarrez hasi ere. Angelek jakin nahi izan zuen ea zerk hunkitu zuen hainbeste eta emakumezkoak: "Azokara bidean, zama garraioan lan guztietan lagun nuen astoa, urrea baino finagoa, joan zen hilean akabatu zitzaidan eta zure kanta-erak, haren irrirtzia gogorarazi dit!". A zer lezioa eman zigun bat-batean. Bere buruari horrela barre egiten dakiena bada nor!

Umorea erabiltzeko joera bagenu, maitatuago gineteke, baita Osakidetzak ere, kuttunago gintuzke edo behar gintuzke; gaixo hobek izango gineteke, txakalaldi gutxiago izango genuke, eta gainera, hobeto eramango genuke bizitza gaitza.

Lehenago batean, gure eskolan jarri duten komun berrian sartu ginen parkinsona eta biok, argia pizteko mugimendua antzematen duen foto-zelula horietakoa daukan komunean. Sartu ginenean piztu zen eta irten arte ez zen itzali. Barez aritu nintzen abantailaz konturatzean; sano daudenak argia itzalitako bakoitzean, ilunpetan, esku edo besoekin imintzio elebreak egiten irudikatuz. ■

Ez bilatu egiazkoak dakizun horretan



Edu Zelaieta
IDAZLEA

Sophia de Mello Breyner Andresen idazle portugaldar zenduari irakurri diozu bertso-lerroa: "*Não procures verdade no que sabes*". Hala ere, egiazkoak *prokuratzeko* tentazioan erori zara. Berriz ere. Zure ustezko instintuaren alde. Zure ekintza ugariren kontra.

Datuetan topatu nahi izan duzu egia aseptikoa. Irrati bidez ailegatu zaizu lehenbiziko entrega: Europar Batasuneko barne ministroek duela urte bat adostutako asilo eskaeren %3,1 baino ez dute bete bertako estatuek; hots, 2015eko udan Siriako gerratik ihes egindako errefuxiatu gehien-gehienek ez dute Europar Batasunean sartzerik izan.

Internetera jo duzu gero, zenbaki itxurako pusketa egiazkoen bila: Hungariak eta Poloniak ez dute gerratik ihes egindako pertsona bakar bat ere hartu, Eslovakiak hiru, Bulgariak sei, Txekiak hamabi eta Kroaziak hamalau. Ehuneko hizkuntzara itzulita, zu bizi zareneko Espainiak esleitua zuen kopuruaren %1,4 besterik ez du hartu, zure jendaki zenbait bizi direneko Frantziak %5,3. Airean gelditu zaitzue galdera: eskuzabalago jokatuko ote genuke euskaldunok Euskal Herri independente batean?

"Ez bilatu egiazkoak dakizun horretan". Aurkikuntza, maiz aski, mingarria izaten da. ■